

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI

buruzko Mutualiaren

17. argazki lehiaketa



Lehiaketaren oinarriak

- Antolatzailea:** MUTUALIA, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutua.
 - Parte-hartzaileak:** 18 urtetik gorako pertsonak, zaletuek zein profesionalek, hartu ahal izango dute parte lehiaketan, epaimahaikideek, beren senitartekoek eta MUTUALIAko langileek izan ezik. Lehiaketan parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
 - Sariak:** Sariak, dirutan, honako hauek dira:
 - **Lehen saria:** 1.200 € *
 - **Bigarren saria:** 900 € *
 - **Hirugarren saria:** 600 € *

**Indarrean dagoen zergei buruzko legerian aurreikusitako atxikipean aplikatuko zaizkio sari guztien zenbatekoari. Zerga-betebeharrak betetzeko, sariaren zenbatekoaren eta dagozkion atxikipenen ziurtagiria emango da.*
 - Argazkien gaia,** laneko arriskuen prebentzioa izango da. Hala, argazkiek prebentzioaren balioak nabarmendu eta arrisku-egoerak eta jardunbide egokiak erakutsi behar dituzte. Jardunbide egokiak erakusten dituztenak positiboki balioztatuko dira. Irudietan, Estatuko mugen barneko egoera bakarrik agertuko da.
 - Argazkiek** originalak eta parte-hartzaileak eginak izan beharko dute. Ezin izango dira aldeztu aurretik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak aurkeztu. Argazkiek ezingo dute hirugarrenen eskubiderik izan.
- Argazkiei moldaketa orokorrak egin dakizkieke, baina ezin izango da argazkiaren konposizio orokorra aldatzen duen elementurik gehitu edo kendu. Artxibo originalak gordetzea gomendatzen da; arlo horri buruzko zalantzaren bat sortuz gero, argitu dadin.
- Koloretan eta zuri-beltzean egin ahalko dira. Egileek nahi beste argazki aurkeztu ahalko dituzte, baina bat baino ez da sarituko.
- Argazkien formatua:**
 - Argazkiak formatu digitalean bidaliko dira, jpg edo bmp. formatuetan.
 - Argazkiek 20 x 30 cm inguru eta gutxienez 300 ppp-ko bereizmena izan beharko dute.
 - Fitxategiak ezin du 5 Mb-tik gorakoa izan.
 - Argazkiak MUTUALIAren hurrengo helbide elektronikoko honetara **bidali** beharko dira: **prebentzioa@mutualia.eus**. Honako hauek erantsi beharko dira:
 - Argazkiaren artxiboa, egilearen izen-abizenak adierazita.
 - Mutualiako web-orrian aurki dezakezun “Deskripzio-orria” izeneko formularioa, behar bezala beteta eta egilearen izen-abizenak adierazita.

Ez da onartuko “hodei” edo antzekoetatik deskargatu beharreko argazkirik, edo aurreko baldintzak betetzen ez dituenik.
 - Argazkiak aurkezteko **epea 2020ko martxoaren 31an** amaituko da.
 - Epaimahaia** honako 4 pertsona hauek osatuko dute:
 - MUTUALIAko Zuzendaritzaren ordezkari batek.
 - MUTUALIAko Prebentzio Aholkularitzako ordezkari batek.
 - Laneko arriskuen prebentzioaren arloan prestigio handikoak diren erakundeetako bi pertsonak (Laneko Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzaren Osalan, etab.)
 - Epaimahaiaren **erabakia** behin betikoa eta apelaezina izango da, eta 2020ko apirilaren bukaeran ezagutaraziko da MUTUALIAren web-orrian (**www.mutualia.eus**). Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe gera daiteke. Sariaren banaketa 2020ko maiatzaren 8an egingo da Bilbon, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko egunaren ospakizun ekitaldian.
 - Jabetza intelektual eta datuen babesa:** Lehiaketako parte-hartzaileek onartuko dute egile-eskubideen legezko titularrak direla eta lehiaketara aurkeztutako irudien, testuen eta bestelakoen gaineko ustiapen-eskubideak dituztela. Halaber, onartuko dute ez dagoela aurkeztutako lanaren gaineko kargarik edo mugarik eta, horregatik, MUTUALIA inolako erantzukizunetik salbuesten du.

Parte-hartzeko eta oinarri hauetan xedatutakoa betetzeko indarrean dagoen legediak exijitzen dizkien baimenak lortzea parte-hartzaileen ardura izango da, adibidez, identifikatutako edo identifikagarriak diren pertsonak erakusten dituzten irudien, datu-pertsonalen edota espazio babestuen edo erreserben tratamendua. Parte-hartzaileak izango dira lehiaketara aurkeztu dituzten lanaren erantzuleak eta MUTUALIA ez du ildo horretako erantzukizunik hartuko bere gain.

Era berean, parte-hartzaileek lehiaketaren oinarrietan ezarritako baldintza guzti-guztiak onartzen dituzte, eta berariaz baimena ematen diote MUTUALIAri lehiaketara aurkeztutako argazkiak erabiltzeko, hura promozionatzeko edo Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean Mutualiaren esku utzi diren jardueretan erabiltzeko; izan ere, Gizarte Segurantzaren kudeaketaren erakunde laguntzailea da, irabazi asmorik gabekoa, eta, beraz, askatasun osoa izango du horiek erreproduzitu edo hedatzeko, edozein dela ere formatua, euskarria, hedatzeko lekua (erakunde ofizialak eta espazio publiko nahiz pribatuak barne), lurralde, denbora eta espazio mugarik gabe. Halaber, baimena ematen du edozein komunikazio-kanal erabiltzeko, telematikoak barne. Bestalde, Mutualiaren betebeharra da parte-hartzaileen eskubideak errespetatzea, eta bermatu behar du soilik haiena dela obren jabetza intelektual; horrenbestez, inoiz ere ez dugu eskatuko aurrez aipatu denaz bestelako ezein eskusibitate, jabetza edo erabilera mota.

Gainera, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko argazki-lehiaketan parte hartuko duten pertsonak baimena emango dute beren agerraldi publikoak filmatu eta/edo edozer hedabide telematikotan eman ditzaten eta, ondoren, MUTUALIAren eta lehiaketaren erakunde kolaboratzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitara ditzaten. Horrenbestez, beren irudia filmatzeko eta tratatzeko eta datu pertsonalak biltzeko eta tratatzeko baimena emango dute.

Azkenik, lehiaketako parte-hartzaileak baimena emango dute beren datu pertsonalak MUTUALIAren fitxategi batean sartzeko eta agiri honetan adierazitako helburuetarako tratatu eta helburu horien arabera argitara daitezen (egilea identifikatzeko, parte-hartzaileen eta irabazleen zerrenda osatzeko eta antzeko trataerak egiteko, besteak beste). Parte hartzaileek datu horiek atzitzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkarazteko eskubideak baliatu ahal izango ditu Mutualiako Segurtasuneko arduradunari helbide honetara gutun bat bidalita: **Henao kalea 26, 48009 Bilbo**.

- Oinarriak onartzea:** Ez da onartuko aurreko baldintzak betetzen ez dituen argazkirik. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan aurreikusi gabeko edozein egoera antolatzaileek ebatziko dute. Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero, deitu hurrengo telefono zenbakietara:

944 042 105 | 943 440 526 | 945 009 077